

JONI D. MUSIKARI ETA IDAZLEA

## "Generalitateko liburutegi sarekoek ez dute liburua nahi, duen izenburuagatik"

**80ko hamarkadan gertutik bizi zuen Bartzelonako punk mugimendua Joni D. musikariak. Orduko giroa eta liburu ofizialetan agertzen ez diren pertsonaiak jaso ditu 'Que pagui Pujol!' liburuan.**

URTZI URKIZU.

80ko hamarkadako Bartzelona punkaren kronika egin du Joni D. musikariak (Bartzelona, 1968) Que pagui Pujol! (Ordain dezala Pujolek!) liburuan. Gaur Donostiako Elkar dendan aurkeztuko du liburua, 18:30ean. Bihar Bilboko Elkarren izango da, eta etzi, Iruñeko La Hormiga Atomican. Uztailaren 7an Gasteizen izango da, eta 9an, Altsasun.

### **Nolakoa zen 80ko hamarkadako Bartzelona?**

Oso grisa zen orokorrean. Behartutako isiltasun urte batzuetatik gentozen. Aurreneko gazteak izan ginen kalera irten ginenak jada diktadorea hilda zegoela. Demokrazia sozial bat saltzen hasi ziren, errealitatearekin zerikusi gutxi zuena. Musika aldetik, Bartzelona kasetaren hiria zen, talde guztiek materiala autogestionatzen zutelako.

### **Zer ezberdintasun daude orduko eta egungo Bartzelonaren artean?**

Herritarren aldarrean aldea dago. Liburu hau idazterakoan, konturatu naiz lagun asko ez daudela gure artean. Garai hartan Bartzelona herritarrena zen. Oskoletik atera berriak ginela, gai ginen kalera ateratzeko. Gaur hori pentsaezina da. Merçeko jaiak, adibidez, guztiz herritarrak ziren. Gaur egun gauzak egiteko beharrak egon arren, erreprimitu egiten zara, bakarrik sentitzen baitzara. Egungo gazteek ez lukete sinetsiko garai hartan nola bizi ginen.

### **80ko hamarkadako Euskal Herria ezagutu al zenuen?**

Bai. Hamarkadaren lehen urteetan mugimendu paraleloak ziren Euskal Herrikoa eta Kataluniakoa. 1983an, RIP eta Basura hemen izan ziren. Kortatuk ere Bartzelonan jo zuen, diskorik oraindik ez zuela. Fanzinen artean ere harreman handia zegoen. Gero RRV marka iritsi zen, eta beste azpiegitura batzuk sortu ziren, Bartzelonan ez zeudenak.

### **Nondik dator liburuaren izenburua: Que pagui Pujol!?**

L'odi Social musika taldearen lehen diskoaren izena da. 80ko hamarkadaren lehen urteetan punk klasikoa egiten zuten taldeak zeuden. Ondoren, bigarren belaunaldia hardcoreagoa izan zen. Soilik bi taldek egin zuten hamarkadako bide osoa: Codigo Neurotico eta L'odi Social. Gainera, L'odi Social talde bakarra izan zen katalanez kantatzen hasi zena. Aktibistenak ere haiek ziren. Liburuan euren bidea agertzen da. Dena den, liburua ez da bakarrik musikaren ingurukoa, soziala eta historikoa ere bada. Aurreko astean Kataluniako Generalitateko liburutegi saretik deitu zidaten, eta esan zidaten ez zitzaizela liburua interesatzen duen izenburuagatik. Patetikoa, baina horrela da.

### **M-15eko mugimenduatik zerbait aterako dela iruditzen zaizu?**

Baietz pentsatzen dut. Bigarren trantsizio bat baino gehiago, aurreneko trantsizio bat etorriko litzateke. Urteak ziren horrelako zerbaiten zain ginela. Batzarrekin, Kataluniako plazako kanpaldiarekin eta ekainaren 19ko manifestazioarekin beste giro bat sentitzen da. Ikusten da jendeak zerbait egin nahi duela. Osasuntsua litzateke aldaketa bat.

### **Eta, bitartean, Kataluniako alkate batzuk euren soldata igotzen.**

Politikaren zirkua da. Nik aurrekoan hau jarri nuen Facebooken: "Gogo biziz nago Donostia berrira joateko". Rubalcabak dio Bildu sinesgarritasuna galtzen ari dela, eta berak sinesgarritasuna aspaldi galdu zuen. Ez dira gai beraiek egiten dutena ikusteko eta herritarrek sentitzen dutenaz hausnartzeko. Francok ondo lotu zuenari eusten diote. Eta piztia gero eta gizenagoa da.